

# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

### 4153

*EBAZPENA, 2016ko irailaren 14koa, Administrazio eta Lurralde Plangintzako sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 9ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzak ematea, eta hori jakinarazten. Agindu horren bidez ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalek informazio geografikoa hobetu eta udal-mapak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak, eta diru-laguntza horiek emateko deialdia egiten da.*

2016ko uztailaren 1ean argitaratu zen EHAAng Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 9ko Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko udalek informazio geografikoa hobetu eta udal-mapak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak, eta diru-laguntza horiek emateko deialdia egiten baita.

Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 1ean amaitu zen, aipatutako diru-laguntzak emateko agindu arautzailearen 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera:

Epe horretan 22 eskaera aurkeztu dira, orotara; horietarik, Orioko Udalak bi eskaera aurkeztu ditu, eta, beraz, bigarrena artxibatu egin da. Hauek dira eskaerak:

- 1.– Zumaiako Udala
- 2.– Arrasateko Udala
- 3.– Lezoko Udala
- 4.– Elorrioko Udala
- 5.– Leaburuko Udala
- 6.– Markina-Xemeingo Udala
- 7.– Laudioko Udala
- 8.– Hernaniko Udala
- 9.– Jon Burgaña Agoues
- 10.– Amezketako Udala
- 11.– Urizaharrako Udala
- 12.– Urkabustaizko Udala
- 13.– José Ángel Zaldua Iparraguirre
- 14.– Orioko Udala
- 15.– Azpeitiko Udala

16.– Juan Antonio Atutxa Balentziaga

17.– Oñatiko Udala

18.– Oiartzungo Udala

19.– Hondarribiko Udala

20.– Durangoko Udala

21.– Bernedoko Udala

Diru-laguntza hauek arautzen dituen 2016ko ekainaren 1eko Agindu horretako 11. artikuluan xedatuarekin bat, horretarako balorazio-organoa eratu zen irailaren 6an, jasotako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedez.

Eskabideak aztertu eta egiaztatu eta gero, eta horren ondorioz, Ebaluazio-organoak, 9.2 artikuluan xedatuari jarraikiz, dagokion ebazpen-proposamena helarazi zion Sailburuordetzari 2016ko irailaren 14an. Ebazpen-proposamen horren II. eranskinean jasotzen du ematea proposatzen duen diru-laguntzen zerrenda, eta hauek aipatzen ditu: udal onuradunak, horien biztanle-datuak (EUSTAT 2015), mapa paperean inprimatu duten ala ez eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Halaber, aipatutako proposamenaren II. eranskinean zerrendatzen dira ukatzen diren eskaerak, zergatik ukatzen diren adierazita.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 12. artikuluan xedatuarekin bat, zeinaren bidez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek informazio geografikoa hobetu eta udal-mapak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta horiek emateko deialdia egiten baita, eta horretarako eratutako balorazio-organoak proposatutakoa ikusita, honako hau

#### EBAZPEN DUT:

Lehenengoa.– Diru-laguntzak ematea ebazpen honen I. eranskinean ageri diren udalei, informazio geografikoa hobetu eta udal-mapak egin ditzaten; hauek ere aipatzen dira: udal onuradunak, horien biztanle-datuak (EUSTAT 2015), mapa paperean inprimatu duten ala ez eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Bigarrena.– Diru-laguntzak ukatzea II. eranskinean ageri diren udalei; arrazoiak ere ematen dira.

Hirugarrena.– Diruz lagunduko diren lanak hasteko eta, hala badagokio, kontratatzeko, eta egiteko gehieneko epeak 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 13 artikuluan ezarritakoak dira.

Laugarrena.– Laguntzak agindu honen 14. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz emango dira.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, erakunde interesdunei jakinarazteko, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 12. artikuluan xedatuarekin bat etorritik, eta, era berean, diru-laguntzak emateko prozedura orok bete behar duen publizitate-printzipioa betetzeko.

Ebazpen honen aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorritik, Ingurumen.

2016ko irailaren 30a, ostirala

Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 14a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,  
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.

2016ko irailaren 30a, ostirala

## I. ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

Udala	Biztanleak EUSTAT 2015	Mapa paperean	Diru-laguntza
Amezketeta	922	EZ	8.009,22 €
Azpeitia	14.822	EZ	8.148,22 €
Bernedo	539	EZ	8.005,39 €
Durango	29.109	BAI	9.949,31 €
Elorrio	7.301	BAI	9.687,61 €
Hondarribia	16.999	EZ	8.169,99 €
Leaburu	364	BAI	9.604,37 €
Lezo	6.056	EZ	8.060,56 €
Laudio	18.404	EZ	8.184,04 €
Markina-Xemein	4.906	EZ	8.049,06 €
Arrasate	21.933	BAI	9.863,20 €
Oiartzun	10.199	BAI	9.722,39 €
Orio.	5.853	EZ	8.058,53 €
Urizarra	282	EZ	8.002,82 €
Urkabustaiz	1.334	EZ	8.013,34 €
Zumaia	9.718	BAI	9.716,62 €
Guztira			139.244,67 €

2016ko irailaren 30a, ostirala

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

Eskatzailea	Ukatzeko arrazoia
Jon Burgaña Agoues	Ez ditu betetzen 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 4.1 artikuluan ezarritako eskakizunak (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalak soilik izan daitezke erakunde onuradun).
José Ángel Zaldua Iparraguirre	Ez ditu betetzen 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 4.1 artikuluan ezarritako eskakizunak (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalak soilik izan daitezke erakunde onuradun).
Juan Antonio Atutxa Balentziaga	Ez ditu betetzen 2016ko ekainaren 9ko Agindu arautzailearen 4.1 artikuluan ezarritako eskakizunak (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalak soilik izan daitezke erakunde onuradun).
Hernaniko Udala	Ez ditu betetzen 2016ko ekainaren 9ko Aginduaren 4.2 artikuluan ezarritako eskakizunak (2014ko deialdian diru-laguntza jaso zuen).
Oñatiko Udala	Ez ditu betetzen 2016ko ekainaren 9ko Agindu arautzailearen 4.2 artikuluan ezarritako eskakizunak (2014ko deialdian diru-laguntza jaso zuen).